



# itsasondo<sup>2.0</sup>

Herriko aldizkaria ((( 2. zk ))) iraila-azaroa 2008

## **Festak badatoz!!!**

Ikastolako agenda lokal 21 Jubilatuen txokoa  
Hiri antolamendu berria Lehiaketa mundiala!



## Kaixo Itsasondotar guztiok!

**U**dara bukatutzat eman dezakegu, jada lanean jartzeko tenorea iritsi zaigu denoi, baita udaletxean etengabe ari garenoi.

Berri askorekin dator gure hirugarren alea, eta lehenengoa da hirugarren hau kalean egotea, errealitate bihurtzen ari da zuen denon laguntzari esker, eta hori pozteko motibo handia da guretzat.

Espero dugu denek opor on batzu iragan dituzuela eta indarrez etorri zaretela herriari harnas berri bat emateko.

Festak hemen ditugu urtero bezala eta ondo pasatzeko asteburu egoki bat datorkigu giro ezin hobe batean murgiltzeko eta gure herritar berriak ezagutzeko aukera izango dugularik. Hala, gogoratu nahi dugu festa hauek ezin lirakeela ospatu urte guztian zehar etengabe lanean ari diren pertsonen lana burutuko ez balitz, txalo bero bat zuentzako !!!

Ondo pasa denok eta hemendik muxu handi bat gure tartean arrazoi ezberdinen ondorioz egon ezin duten guztiak. ■

# Itsasondoko Festak



## IRAILAK 19 OSTIRALA

17:00 etan: Zinta karrera , Ginkana eta abar...

19:30etan: Itsasondo eta Aramaren arteko futbol derbya.

21:30etan: Herri afaria, ondoren dantzaldia Tapia eta Leturiaren eskutik.

## IRAILAK 20

9:00etan: Goiz eresia.

11.00etan: Altxorraren jokua

13:00etan: Paella prestaketa.

18.00etan: Herriko olimpiadak.

20:30etan: Afari merienda enparantzan eta ondoren disfrazak izango ditugu herriko enparantza nagusian.

22:30etan: Dantzaldia.

## IRAILAK 21 IGANDEA

9:00etan: Goiz eresia.

11.00etan: Puzgarriak eta antzerkiak.

12:00etan hamaiketako izango dugu udaletxe azpian.

13:00etan: Herri kirolak.

17:00etan: Puzgarriak eta haurrentzako tailerrak.


17:30etan: Herriko enparantzan mus , toka eta partxisen jokatzeko aukera izango da.

18:00etan: "Kukuxtu" Iparraldeko txaranga herriko enparantzan.

18:30etan: Txirindu lehiaketa.

20:00etan: Sagardo dastaketa.





# Itsasondoko hiri-antolamendu plana

Itsasondoko Udalak 2005. urtean Itsasondoko Hiri-Antolamendu plana erredaktatzeko erabakia hartu zuen, indarrean zeudeten arau subsidiarioak aldatzeko baldintzak betetzen zirelako.

Hirigintza plan berria erredaktatzeko ekipo tekniko kontratatatzeko zegozkion tramiteak burutu ondoren, aukeraturako enpresa Izaskun Aseginolaza eta Jose Luque arkitektoek osatutako UTE enpresa izan zen.

2006 eta 2007 urteetan zehar Hirigintza arau berrietan jaso beharreko zenbait atalei buruzko eztabaida saioak burutu ziren Udaletxean, herritarren partehartzea bultzatu eta beraien eritzia jaso asmoz.

Orain arte jarraitutako prozesuaren egoera ezagutarazteko, Hirigintza arauak onartzeko jarraitu beharreko prozedura azaltzen da segidan, egindako tramiteak eta egitekoak daudenak zehaztuz:

**Aurrerapen dokumentua eta jendaurreko erakusketa**  
Itsasondoko Udalak 2006ko azaroaren 9an Itsasondoko Hirigintza Arauen aurrerapena jendaurrean jartzea erabaki zuen bi hilabeteko epean zehar.

**Itsasondoko Hiri Antolamendu planaren irizpideak onartzea**  
Aurrerapena jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak aztertutik, 2007ko maiatzaren 17an egindako udal osoko bilkuran Itsasondoko Hiri Antolamendu planaren irizpideak onartzea eta dokumentuaren erredakzioarekin jarraitzea erabaki zen.

**Hasierako onarpena**  
Antolamendu planaren erredakzioaz arduratzen den ekipo teknikoak, uztailaren amaieran aurkeztu dio udalari Itsasondoko Hiri-Antolamendu plan orokorra, eta irailaren 3an egindako ez ohiko bilkuran, gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, aipatu plana hasierako izaeran onartzea erabaki da.

Hartutako erabakia eta onartutako plana jendaurrean jartzea ere erabaki da hilabeteko epean zehar. Aipatu epean interesatu guztiek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

**Behin behineko onarpena**  
Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, udalak behin-behingoko onarpena eman beharko dio plan orokorraren dokumentuari. Behin behineko onarpena eman aurretik, errepide, ingurumen eta beste zenbait erakundeetako txostenak jaso beharko dira. Baldin eta aldaketa nabarmenak egitea erabakiko balitz, jendaurreko epe berri bat ireki beharko da.

**Behin betiko onarpena**  
Hiri Antolamendu planen behin betiko onarpena Itsasondoko bezalako herrietan Foru Aldundiaren eskumena izanik, tramitatutako plan eta espedientearen kopia helerazi beharko zaio aurreko fase guztiak amaitu ondoren behin betikoz onartua izan dadin.

Hirigintza planeamendu berriak herriaren antolaketarako duen garrantziaz jabetzea eta Itsasondoko Hirigintza-Antolamendu plan berriaren proiektua ikustera etortzeko deia egiten diegu herritar guztiei. ■

| KUTIRAK             | SIGNOS     |
|---------------------|------------|
| Subirioaren         | Orondegiaz |
| Neki argiak         | Orondegiaz |
| Aurkitutako eremuak | Orondegiaz |
| Herriaren mugak     | Orondegiaz |
| Ofizialak-ikurak    | Orondegiaz |
| Herriaren mugak     | Orondegiaz |
| Nabariak            | Orondegiaz |
| Uretan              | Orondegiaz |
| Herriaren mugak     | Orondegiaz |
| Herriaren mugak     | Orondegiaz |
| Herriaren mugak     | Orondegiaz |
| Herriaren mugak     | Orondegiaz |
| Herriaren mugak     | Orondegiaz |
| Herriaren mugak     | Orondegiaz |

**ITSASONDOKO MAPA 1:7.500**  
© Itsasondoko Udalak • 2007  
Egitze Isarnagorri eta El





# Ikastolako Agenda 21 taldeak urari buruzko lan bat prestatu digu



## Herriko gazteok badugu zer esan

Tokiko Agenda 21 programaren baitan, Itsasondo LHI eskola osatzen dugunok gure herrian ingurumenenaren aldeko jarreak, ekintzak... lantzen aritu gara Eskola Agenda 21 programaren bidez.

Urtero bezala gai nagusi baten inguruan lan egin dugu kurtsuan zehar, eta hirugarren urtea dugun honetan aukeratutakoa URA izan da. Egindako lanarekin uraren gaiak garrantzi handia duela konturatu gara. Izan ere ura gure ingurunean ugaria denez erraz ahazten ditugu ur-eskasiak, uren kutsadurak... sortzen dituen arazo larriak, eta beraz oraindik ere konzientziario eta ardura falta handiagoa dugu gizartean.

Itsasondoko gazteok gure inguruneaz kezkatzen garela jakinarazi nahi diogu herriari, eta gure eskaera, proposamen eta kezka azaltzeko aukera ezinobea da programa hau.

Gaia era askotan aztertu dugu.

## Ikastetxe barruko lanak

- Alde batetik **ikastetxe mailan** uraren erabileraren diagnostikoa gauzatu dugu zentroko ur kontsumoa zein den, iturri eta radiadoreak zein egoeratan dauden, zein erabilera ohitura dauzkagun... behatuz. Eta bide batez aurkitu ditugun akatsak zuzentzeko hartu beharreko neurriak hartzen saiatuz. Besteak beste arraskatik pinturak botatzen direla konturatu gara.
- Bestetik gaur egun **curriculum-ean** urari ematen zaion traktura aztertu dugu. Klaseetan uraren erabilera, aurrezteko jarrerak, ohitura txarretaz jabetzea (kutsadura eta kontsumoa), uraren garrantzia gure eguneroko bizitzan... bezalako gaiak landu ditugu.

## Herri mailako diagnostikoa

Azkenik **herriko kudeaketa** izan dugu azter-gai. Herritarrok zein erabilera ematen diogu urari? Zein da gure konzientziario maila? Herriko urak ongi kudeatzen al dira? Zein ur kontsumo dugu herri mailan?

Herriko diagnostikoa egiteko eskolatik irten eta behaketak, galdeketa eta hausnarketak egitera bultzatzen gintuzten fitxa batzuk erabili ditugu. Fitxa hauek lantzeko hainbat irteera ere egin dira: herriko erreken egoeraren azterketa, herritarrei galdeketa, txikienek uraren inguruko jolas bati esker herriko iturrien funtzionamendua ikusi dute.

Bukatzeke lan hauek burutu ostean jasotako informazioarekin herriaren balorazio bat egin genuen ideia orokorrak eta proposamen zehatzak biltzeko. Ikusitakoa ikusita gure kabuz alda dezakeguna aldatzeko konpromisoak hartu ditugu. Eta udaletxeari dagozkion gaiak aurrera eramateko berriz, udalari zuzenduriko hainbat proposamen sortu ditugu.



## Konpromezu eta erabakiak

### IKASTETXEAN

1. Komunetako txorrotan aurrezteko sistema.
2. Jarri eta komunetan 50cl-ko ur botilak jarri.
3. Behar den URA besterik ez erabili.
4. Behar den komuneko papera bakarrik erabili.
5. Kanilak itxi bukatutakoan.
6. Ura zaindu behar dugu.
7. Komunetik hondakinik ez bota.
8. Gelako paperaren kontsumoa kontrolatzen jarraitu.  
Eskulanetan, txukun ibili eta garbiketan ura egoki erabili, zikinkeririk bota gabe : plastilina, buztina...

### HERRI MAILAN

1. Iturriak zaindu behar ditugu.
2. Behar dugun ura soilik erabiliko dugu.
3. Alkantarietan ez dugu zikinkeririk bota behar.
4. Herritar bezala, jarrera arduratsua hartuko dugu.



## Ondorioak eta proposamenak

Hartutako konpromezu eta erabakiak aurrera eramateko, ondorengo neurri zuzentzaileak hartu ditugu :

1. Ura aurrezteko: Kaniletan emaria mugatzen duten tresnak instalatu.
2. Zisternan ur botela sartu.
3. Zenbat komuneko papera gastatzen dugun kontrolatu.
4. Komunetan toaila erabiltzen dugu, non astero ikasle batek etxera eramaten duen garbitzera, berdin irakaslegoak.
5. Bestalde, gelako paper kontsumoa kontrolatzen jarraitzen dugu, baita birziklatzen ere.

Eta udalari berriz hurrengoak proposatzen dizkiogu :

1. Herriko iturri motak aldatzeko aukera proposatzen da, ura aurrezteko emaria murrizteko beharra dago.
2. Kristinaeneara joan ginenean, txorrotetan ur emaria aurrezteko tresna bat eman ziguten eta ikasle bakoitzak bere etxera eraman zuen bertan ipintzeko. Udalari aldez, zisternetan ura aurrezteko poltsak banatzea proposatzen diegu.
3. Etxe bakoitzean zertan aldatu dugun azaltzea proposatzen diegu udalari. Gure jarreraren eta hartutako konpromezuak, udaletxean azalduz.
4. Bestalde, aurreko urtean udaletxeak olioaren bilketa errezteko edukinontzi bat jarri zuen eta horren erabilpenaren berri jakin nahi dugu. Beste zerbitzu berriren bat izanez gero, gustora entzungo genuke. ■



# Berdintasun planarekin aurrera goaz...



*Itsasondoko  
I Berdintasun Plana*

Aurreko aldizkarian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko txoko honetan Itsasondoko Udalak onartu berri duen I. Berdintasun Planari buruz aritu ginen. Plana onartutakotan, garatzea izango da Itsasondoko udalak aurrera begira duen erronka nagusia. Itsasondoko herritarrei ekarriko dizkien onurak ikusirik, arduraz jokatzera erabaki da, eta planaren garapena ahalik eta parte-hartze handienarekin egiteko, lanaldi erdiz berdintasuneko gaitan aditua den pertsona bat kontratatzea erabaki da. Momentu honetan, kontratazio hori ixten ari gara; beraz, datorren aldizkarian izango dugu berriro ere planaren gaiari heltzeko parada.

San Juan bezperan, Itsasondoko biztanle guztiok hitzordu batean parte hartzeko aukera izan genuen. Ekainaren 23an, Euskal Herriarentzat eta, batez ere, emakumeontzat hain esanguratsua den egunean, jaialdi bat antolatu zuen Itsasondoko emakume taldeak, guraso elkartearen parte hartze eta Udalaren laguntzarekin.

Arratsalde partean, guraso elkarteak prestatutako sardinak dastatzeko aukera izan genuen, ardo eta sagardoz lagunduta. Gaueko 10etan su beroaren inguruan bildu eta Sorgin Dantza ekarri genuen gurera. Suaren inguruan bildurik, ekainaren 23ko gauaren misterio eta magia guztiaz gozatu genuen, Aker Beltza gurtzen zuten sorginen gau bilera gogoratuz eta gurera ekarrit.

Jakina denez, ordea, antzinako garaietan, festa giroan ez ziren emakumeak bakarrik biltzen; hartara, Itsasondoko gizonei ere gonbite zuzena egin zitzaizen Akelarrean parte hartzeko.

*Garai bateko euskaldunen ohiturei jarraituz, magia eta alaitasunez beteriko gau ahaztezina izan genuen, benetan. ■*

# UEMA Egunean, udalerrī euskaldunek bat egiteko premia aldarrikatu dute

**Udalerrī Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) sei kide gehiago ditu joan den asteburutik: hiru bizkaitar (Atxondo, Mallabia eta Otxandio), nafar bat (Areso) eta bi gipuzkoar (Ezkio-Itsaso eta Azpeitia). Festa eta aldarrikapena uztartuta, Azpeitian egin da aurtengo UEMA eguna, «Sustraiak galtzen ez utzi. Euskarari eutsi» leloarekin. Bilkura eta harrera ofizialez gain, egitarauak kirol lehiarako eta festa girorako aukera ere egon zen: pilota partidak, herri kirol lehia bizia, bazkaria Berdura plazan, haurrentzako parkea, txotxongiloak, dantzaldia...**

**U**EMA Eguna Azpeitian (Gipuzkoa) ospatu zen joan den larunbatean, eta 2008an UEMAn sartu diren udalerrī berriak izan ziren protagonista nagusiak. Sei udalerrī horiek sartuta, inoizko udalerrī kopuru handiena izango du UEMAk (52). Festa giroa nagusitu bazen ere, aldarrikapenak ere toki handia izan zuen egun osoan. Mankomunitateko ordezkariak, Azpeitiko udal arduradunek eta bertako euskalgintzako kideek hitza hartu eta bat egin zuten ideia honekin: euskarak irauteko, ezinbestekoa da euskara nagusi izango den lurgunea.

Jon Bollar UEMAko presidentek mankomunitatearen 17 urteko ibilbidea izan zuen hizpide, eta lortutakoa nabarmendu zuen: «Administrazio publikoak mendeetan eta mendeetan erdaraz funtzionatu arren, gauza izan gara egoera hori irauli eta euskaraz funtzionatzen ipintzeko». Azpeitiko alkate Iñaki Errazkinek ere ez zuen aldarrikapena bazter utzi: «Egun hau oso garrantzitsua da. Urte luzeetako aldarrikapena egia bilakatu dugu, UEMAn sartu gara. Guretzat ohorea da. Azpeitiak euskara behar du, Euskal Herriak euskara behar du, euskara nagusi izango den lur eremua behar du Euskal Herriak». EHEko Azpeitiko ordezkari Eneritz Mendiolak txalotu egin zuen udalak Mankomunitatean sartzeko egindako hautua, eta aurrerantzean eragileak inplikatu beharra nabarmendu zuen.

Inplikazio horren adierazgarri Kontseiluaren presentzia

izan zen: «Euskaraz bai» erakusketa ibiltaria eraman zuten Azpeitira, eta bertan izan ziren Iñaki Lasa Kontseiluko ildo politikoaren arduraduna eta Paul Bilbao Behatokiko zuzendaria, besteak beste.

Ekitaldi instituzionalaz gain, kirol lehia ikusgarriak izan ziren: goizean goizetik pilota partidak gazteen artean eta herri kirol lehia Azpeitiko, Zestoako, Lea-Artibaiko eta Aramaioko gazte koadrilen artean. Azkenean, arabarrak nagusitu ziren, eta merezitako saria jaso zuten, herri bazkarian zeudenen txaloen artean. Nolanahi ere, UEMA Eguna ez zen bazkariarekin amaitu. Arratsaldean, haurrentzako puzgarriak izan ziren plaza nagusian, eta gazte zein helduentzako festa giroak luze iraun zuten. ■





## Aht: azken berriak

### Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanako kidea

Hemen bildu garenok (Itsasondo eta Legorretako Udaletako ordezkariak, Ordiziako Aralar-reko zinegotzia, Ordiziako eta Beasaingo zinegotzi ez gaituak, Olaberriako EAEko zinegotzia, Lazkaoko Ezeker Batuako zinegotzia, Ataungo zinegotzi ez gaitua, Zeraingo zinegotzia eta Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanako kideak), datorren asteazkenean, hilak 9, AHTren Ordizia-Itsasondo zatiko akten altxamendua Donostian dagoen Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzan egin asmo dituzten akten altxamendua dela eta, instituzioen ikuspuntutik, hainbat salaketa egin nahiko genituzke:

### Itsasondoko Udaleko ordezkaria

Itsasondoko herritarrek, 2006ko abenduaren 3an, informazio-prozesu luzearen ondoren, ezezko borobila eman zioten Euskal Herria osorik zeharkatuko lukeen azpiegitura erraldoi honi. Horren ondorioz, udalak erabaki irmoa hartu zuen Abiadura Handiko Trena gelditzeko bidean lan egiteko asmoz. Horixe jakinarazi diegu behin eta berriz, Espainiako Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari. Horiek aldiz, herritarrei galdetzeko aukera erabat baztertuta, ez dituzte gure arrazoiak eta argumentuak entzun ere egin nahi. Horren adibide, AHTren Ordizia-Itsasondo zatiko lanari udalak egindako azken helegiteari eman dioten erantzuna: dena lotuta dago eta hau, guztiaren gainera, aurrera doa.

Hori gutxi balitz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez jakin genuen, berez udaletan egitekoak zen akten altxamendua Donostian dagoen Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzan egitea erabaki dutela. Horrek zapalketa bikoitza dakar berarekin: udalen eskumenena, batetik, eta lurjabeen eskubideena bestetik.

### Legorretako Udaleko ordezkaria

Horrexegatik, bai Itsasondoko udalak, bai eta Legorretakoak ere, Ordezkaritzara eskutitz bat bidaltzea erabaki dugu, batez ere lurjabeenak diren eskubideak errespetatu ditzaten exijituz; hau da, akten altxamendua bulego batean ikusitako plano baten gainean egin beharrean, lurretan bertan egitea exijituz.

Bestalde, udal afektatuak garen aldetik, salatu nahi genuke Eusko Jaurlaritzak lurjabeekiko, udalekiko eta herritarrekiko erakusten duen jarrera. Obrak nola edo hala martxan jartzeko presak badirudi oinarritzkoak diren hainbat kontu baztertzeraz eraman dituztela: AHTren Ordizia-Itsasondo zatia ondorengoak direnen (Beasain Ekialdea eta Mendebaldea eta Legorreta) berri ematea. Oraindik Beasain eta Legorretan, afektatuak izango ote diren ez dakiten lurjabeak daude, ez eta baserria botako dieten edo AHTren trafiketatik metro gutxi batzuetara bizitzen utziko dieten ere.

### Ordiziako zinegotzia

Desinformazio horren ildotik, esan nahi genuke, Ordiziako Udalak, eta batez ere, Ordiziako Alkateak jarrera erabat ezezkoa izan dutela gai honetan. Behin eta berriz galdetu bazaie ere, Udal ordezkariak alkatearen esku zegoela zioten, eta alkatea bera ez da gai izan hainbat galdera erantzuteko, kamioien joan-etorriak nondik egingo dituzten. Gainera, pasa den asteazkenean, uztailaren 9an egin nahi dituzten akten altxamenduari buruz galdetuta, oportetatik bueltan zetorrela eta horri buruz ezer ez zekiela izan zen bere erantzun bakarra.

Horiek adibide batzuk besterik ez dira, baina azken urteotan Ordiziako Udalean gobernatzen egon diren ordezkariak herritarrekiko azaldu duten errespetu ezaren isla garbia izan dira, proiektuarekiko inongo interesik azaldu ez eta gainera informazioa herritarrei ezkutatu.

### Beasaingo zinegotzi ez gaitua

Baina Ordiziako Udala ez da ezkutukerian ibili den bakarra. Beasaingo alkateak berak pasa den osteguneko udalbatzan esan zuenez, "ia ziur" dago Ordizia-Itsasondo zatiko lurrentzat hondakindegia ez dutela Erauskin auzoan egingo. Ordiziako alkateak, aldiz, guztiz kontrakoa zioen pasa den asteazkenean: "lurra ziur Beasaina joango direla". Nola liteke desjabetzak burutzeko azken tramitea den akten altxamendua hemendik bi egunetara egin nahi izatea eta oraindik lur kopuru izugarri hori (396.632,66 m<sup>3</sup>) nora era-





mango dituzten argi ez edukitzea? Nola liteke Beasaingo alkateak Oinarrizko proiektua eta Eraikuntza proiektua eginak dituen zatiaren datu garrantzitsu bat zalantzan jartzea?

Beasaingo alkateari behin eta berriz galdetu diogu ea hondakindegia horren inguruko informaziorik, planorik duen. Bere erantzuna beti izan da hitz egin duela Eusko Jaurlaritzarekin eta kamioiak ez direla herritik pasako, baina inoiz ez digu ez plano, ez paper, ez proiekturik erakutsi nahi izan. Lotsagarria iruditzen zaigu, exekuzio-fasean bete-betean sartuta herritarroi informazioa ezkutatzea, eta are gehiago, bi egun barru Erauskin auzoko bi lurjabe deitu dituztelako beren lurrak desjabetzeko asmoz. Desjabetza egin eta gero zer? Hori erantzuteko gauza ere ez da Beasaingo alkatea.

### **Olaberriko zinegotzia**

Eta kasu honetan tunel bakarraz ari gara. Zer dira bada Ordizia-Itsasondo tuneleko 2,8 km Euskal Herri osoa urratuko duten 426 km-en aldean? Zer dira bada Ordizia-Itsasondo tuneletik aterako dituzten 400.000 m<sup>3</sup> lurrak "Euskal Y" a egiteko tuneletatik atera beharko lituzketen 33 milioi m<sup>3</sup> lurrekin alderatuta? Milioika m<sup>3</sup> horiek nonbaite-ra eraman behar dituzte eta noski, trazatuaren inguruan dauden lekuak bilatu. Baina obrak hasita badituzte ere, badirudi horrelako "xehetasunak" ez dituztela lotuta, edo hala ez dituztela pentsarazi nahi digutela.

Olaberrian, prentsaren bidez jakin genuen Jardín Botaniko bat egitekotan zebiltzala, eta kasualitatea, Ordizia-Itsasondoko lurrekin egingo omen zen. Gaur arte, udala gobernatzeko dutenek esan diguten bakarra bilera bat egin dutela da, eta erakutsi diguten paper bakarra, Eusko Jaurlaritzak udaletxera bidalitako lehen proposamena (ez plano, ez eta proiekturik ere). Zertara ari dira jokatzeko? Kamioiak gora eta behera ikusten ditugunean jakingo al ditugu Euskal Herriarentzat estrategikoa omen den azpiegituraren nondik norakoak?

### **Lazkaoko zinegotzia**

Olaberria ez da "herri afektatu" gisa katalogatzen; Lazkao ere ez. Baina afektatuak guztiok gara, goierritar guztiok, azken batean Goierri aldenik alde zeharkatuko duen azpiegitura gauzatzeak bizilagun guztion bizimoduan eragingo baitu, ez soilik milaka tona-lur garraiatzeak eragingo duen zirkulazio-handitzeagatik, edo boladurek sortuko duten zarategatik edo makinaria guzti horrek isuriko duen CO<sub>2</sub> guztiagatik. Azpiegitura hau ez da herritarrentzat pentsatutakoa, ez da beraiek dioten bezala ez "ekologikoa" ez eta "soziala".

Zentzu horretan, Lazkaoko zinegotzi gisa eta goierritar gisa, agintariei ekonomikoki xahutzailea den, ingurumenari sekulako kalte atzeraezina egingo dion eta sozialki bidezkoa ez den azpiegitura hau gelditzea eskatzen diot eta utz ditzatela, orain arteko ezkutukeria eta iluntasuna alde batera, herritarrei informazioa eman ez eta galdetuz.

### **Zeraingo zinegotzia**

AHTak kaltetuko dituen herriak ez dira, hemen adierazi bezala, trazaketak ukituko dituenak soilik. Euskal Herrian eraiki nahi dituzten 121 tunelek Euskal Autonomia Erkidegoan 514 Ha okupatzera behartuko lituzkete hondakindegietan soilik. Baina tunel kopuru itzel hori egiteko porlan-kopuru izugarriak beharko dira. Eta nondik aterako dituzte tunel horiek egiteko behar dituzten 5,6 milioi m<sup>3</sup> porlan? Nondik azpiegitura osoa gauzatzeko behar dituzten 8,1 milioi m<sup>3</sup> porlan? Trazatutik ahal den gertuen dauden harrobietatik. Baina harrobi horiek guztiak ez dira existitzen gaur egun, itxitakoak irekitzeko eta berriak eraikitzeko asmoa dute. Duela gutxi Ekologistak Martxan taldeak ohar-tarazten zuenez, Eusko Jaurlaritzak mahai gainean jarri duen ikerketaren arabera, Gipuzkoan erein daitezkeen lurren % 40 baino gehiago okupatuko lukete. Goierriin 3 harrobi berriz irekitzea ari dira proposatzen: bat Ataungo San Gregorion eta bi Zerainen.

### **Ataungo zinegotzi ez gaitua**

Datu horiek, ordea, prentsaren bidez ezagutzen ditugu, ez udaletxera dokumenturik iritsi delako edo informazioa bidali dutelako. Eta kasu horietan gertatzen den bezala, kontrerasanak ere aurkitu ditugu. AHTren Ordizia-Itsasondo zatiko Eraikuntza Proiektuak San Martingo Jentilbaratzako harrobia aipatzen du porlana egiteko iturri baliagarri gisa. EVeren txostenak, aldiz, Ataungo San Gregorioko leku bat aipatzen du, guk oraindik zein den ere ez dakiguna. Horrez gain, aipatutako eraikuntza proiektuan Itsasondo eta Legorreta artean 3 harrobi posible ere aipatzen dira.

Harrobiak, hondakindegia, ... horiek guztiak beharrezkoak direla esaten digute, horiek guztiek herriaren garapenerako beharrezkoak direla. Zein garapen ordea? Herritarrei galdetu al digute zer den nahi duguna? Zergatik ez dituzte mahai gainean jartzen behingoz AHTa bezalako azpiegiturek benetan dakartzaten ondorioak eta horren arabera denon artean erabakitzen dugu egitea ala ez? Hori egiteko interesik ez dute ordea, bai baitakite AHTak dakartzan ondorioak azalduz gero, inork ez lukeela berau egitea nahiko.

### **Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanako kidea**

Hemen aipatu diren guztiengatik eta askotan aipatu ditugun arrazoiengatik, Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari, azpiegitura bertan behera uzteko eskatzen diegu eta herritarren artean garraio-eredu eta sozialari buruzko eztabaida sakona eta benetakoa irekitzea.

Bestalde, Ordiziako eta Beasaingo alkateek asteazkenean Donostiara joan eta aktak sinatzeko asmoa azaldu dute. Horiei eskatu nahi diegu, gutxienez, akten altxamendua beren udaletxetan, eta batez ere, lurjabeen lurretan egiteko bidea irekitzea, beren udalerrietako herritarren diren lurjabeen eskubideak bermatzeko pausu bat izan dadin.

Eta herritarrek, asteazkenearako, hilak 9, Goierriko AHT Gelditu! Elkarlanak antolatutako mobilizazioetan parte hartzera deitu nahi ditugu:

- Goizeko 10:00etan, kontzentrazioa Gobernuaren Gipuzkoako Ordezkaritzaren parean.
- Arratsaldeko 19:00etan, kontzentrazioa Ordiziako Jakes etxearen parean (Barrenan).■



# Oporrak

**G**ure gazte denboran oporrak oso eskasak ziren eta, garbi esateko, gaurkoak bezalakoak ez ziran ezagutzen.

Baserritarrak, urte guztian, igande ta jai egunak barne, etzuten oporrik izaten. Geienaz ere, asteazkenean, egun erdi bat, peri izenean. Emakumeek, zerbait saltzeko bazuten joango ziran perira, bestela ez.

Jornalean ari bazan berriz, aste bateko oporra izango zuen eta herrian lan egiten bazuen, Andra Maritan. Inork ez zuen hartuko, gaur bezala, ondartzara edo bidaietara joateko, baizik eta etxea txukundu edo zuri-tu bat emateko, senide baserrikoei lagundu edo beste lan mota baterako. Batzuk, baita ere, beren lantokia txukundu edo bertako konponketa batzu egiteko. Inork gutxi edo inork ez OPOR egiteko.

Garai artan, LANA zan jaun eta jabe. Zorionekoa deitzen zitzaion ordu asko sartzeko era izaten zuenari. Lan orduak, legez, zortzi ordu ziren bainan amar edo geiago sartzen zituztenak asko ziran. Orrela, asteko 48 orduak 60tikeko gora izaten ziran, langillen bearrak pixkabat arintzeko eta nagusiaren ondasunerako.

Joandan gizaldin erdialdetikan asi ziran gauzak pixka bat gaurkotzen: batzuk larunbat arratsalden jai eginez, opor egunak luzatuz eta abar, bainan ala ere ez zen etxetik kanpora inor asko mugitzen. Oiturarik ez edo gabetasuna eta geienetan biak batera. Bazekiten orduko diruetxeak alferrik eskeiniko zutela diru aurreratua oporretarako.

Guk, geienok, gure lan urtetan, ez degu izan gaur dagoen oporretarako aukerarik, ezta ametsik egin ere. Ala ere, ez nuke esango gaur baino gaizkiago bizi ginenik, ze aurrerapen gutxiago eduki arren konforme izaten ginan. Ausartzen naiz esatea ondo edo gaizki



bizitzea konformidaden arabera dala. Jubilatutako elkarteak sortu ondoren ibilalditxo asko egin ditugu eta batez ere, len urtetan, askotan entzuten zan "gaztetan egiterik izan ez genduen orain iritsi zaigu" eta poz gehiagorekin 15 egun ondartzan igaro dituen baño.

Pestak iristeko ere gaur baino poz aundiagoa nabaritzen zan. Ura zan oporren gozotasuna! Sendi tartekoak, kantatu, eta dana urteko bazkaririk onenean. Pestak eratzeko ardura erri osoarena zan eta oraindik itzulmiña sortzen du beste erri batzutan, gure inguruko Baliarrain, Orendain, Zerain eta abarretan, gure orduko eran jarraitzen dutela ikusita.

Gure modukoak gogoratzeko eta gazteak jakiteko segituan jarriko ditut 1951ean izan ziren pestak.

Asteartea 14: eguerdian kanpai eta suziriak. Arratsalden umeen danborrada eta txistulariak. Gero salbea eta ondoren amarrakarte, goiko eta beko plazan soinua.

Asteazkena 15: goizean kanpai, suzidi eta txistularien goiz eresiak. Ondoren Usurbilko Andazte dultzaiñeroak herri jiran ibili ziran. Amarretan, meza nagusia. Ondoren goiko plazan dultzaiñeroen konziertua. Arratsalden 5 etatik 12tara erriko txistulariak, Usurbilko dultzaiñeruak eta Azkoitiko trikitixa, txandatuz, dantza giroa sortu zuten. Iru soinu-jole multzoekin kalejira bat edo geiago eratu ziren ere.

Osteguna 16: goizean txistulariak, meza nagusia eta pelota partiduak. Eguerdian, aurreku eta trikitixaren konziertua. Arratsalden, umeen jolasak, elduen korrika apustue eta amarrak arte trikitixa eta txistulariak.

Igandea 19: goizean txistulariak, meza nagusia eta txirringulak proba 58 kilometrokoa. Eguerdian Nikolas Iturrioz, Inaxio Iturrioz eta Jose Otegik eskeni ziguten txistu konziertua: nere amak baleki (Ansorena), Minueto (Bicente Monzon) eta Agur Jaunak (Luis Urteaga) joaz. Arratsalden, erriko bertsolarien txapelketa, eta 12k arte trikitixa eta txistulariak etengabe.

Gogoratzen ditudan aian azaldu ditut eta errurik badago barkatu. ■



**Jubilatu bat**



# Auzolana

**A**pirilaren 5ean eginiko auzolanari jarraipena emateko, zenbait herritar berriro bildu ziren ..... eta .....egunetan herrian atondu gabe geratzen ziren farola, paperontzi, aulkiak eta abar margotzeko.

Bertan, elkarlanean aritu ziren haurrak eta helduak; hartara, gauzak aldatzeko aukera egon badagoela adierazi zuten.

Nahi dugun herria sortu dezakegu, borondatea eta ilusioa badugu, behintzat.

Beraz, herritar guztiak hurrengo deialdietara gonbidatzen zaituztegu, elkarlanean eta elkar ezagutzan nahi dugun herria lortuko dugulakoan baikaude.

Mila esker proiektu honetan sinetsi duzuen guztioi!

Hurrena arte! ■



## Euskera ikastaroak



### *Kaixo herrikideok!*

Aurten ere AEK-k 2008-09 ikastaroa antolatuko du zuen herrian/eskualdean. Aukera polita da euskara ikasteko, bizitzeko eta sentitzeko. Beraz, lehenbailehen, zuen udaletxera jo eta bertan informazioa eskuratzeko aukera izango duzue.

Anima zaitzte!



## Senpere

**A**urten Senperera joateko deialdi irekia egin zen; lehenbizi, noski, antolatzaileekin hitz egin zen (20 bat urte daramatzate irteera hori prestatzen), eta ez zuten inongo eragozpenik jarri. Beraz, Lourdesen dendara eta Kaxintanera jo genuen izena ematera.

Giroa primerakoa izan zen: lehenbizi, hamaiketakoa, eta, gero, giroaz gozatzeko bueltatxo bat eman genuen, antolatzaileek bazkaria prestatzen zuten bitartean.

Bazkaltzeko, berriz, babarrunak eta paella! Eta bazkalondoan... Kuxkuxtu txarangarekin musikaz gozatzera!

Egun polita izan zen, benetan!

Bukatzeko, antolatzaileei mila esker eta espero dugu hurrengo urtean ere elkar ikustea.

Ongi izan!



## Irratia

**P**roiektu polita iruditu zitzaigun Segura Irratitik Iratik eta Harkaitzek proposatutakoa.

Goierriko herriak ezagutzeko eta bertako jendeak elkarren berri izateko, bi saio antolatzen zituzten larunbat goizetan.

Gehiegi pentsatu gabe, baietz esan genien, eta uste genuena baino hobeto atera zen: Lehenengo saioan, Mikel Mendizabalek zenbait daturekin Itsasondoko herrian kokatu zituen entzuleak, eta, horren ondoren, Joxe Mari irakaslearekin Itsasondoko hainbat iturri ezagutzeko aukera izan genuen, herritik ibilalditxo bat eginez.

Hortxe aritu ziren gure soinujoleak ere, saioa alaitu. Primeran, Mainer, Naiara eta .....!

Gero, hainbat adinetako hiru gaztek (Oroitzek, Ainhoak eta Jonak) erakutsi ziguten urteen poderioz gizarteak egin duen aldaketa.

Bukaera alderako, Iñaki apaizaren ahotik, Milixio pertsonaiaren zenbait kondaira entzun genuen, eta, bukatzeko, gure herriko txoko polit eta hunkigarrienen deskribapena.

Bigarren saiorako dena prest zegoen. Lehenbizi, Mikel Zurutuzak itsasondotarrak nolakoak diren adierazi zigun, eta, gero, koloreak etorri ziren: gorria, Aitor eta Ruthentzat, herri ekimena izan zuten hizketa gai, eta herrian egin dituzten hainbat ekintzaren berri eman ziguten; horia, Aretirentzat, etorkinen gaia jorrazteko, eta garbi utzi zuen bera hemengoa sentitzen zela, etorkina izanik ere -jakin dezala, geuk ere hala sentitzen dugula bera, hemengoa-; morea, Maiterentzat, emakume taldean egiten diren ekintzak eta helburuak adierazi zizkiguna; eta, azkenik, berdea, Jose Sarasolarentzat, eskolan egiten duten Agenda 21eko proiektuan ingurumena jorrazteko.

Bukatzeko, elkarrizketa Danel Etxeberria alkateordearekin. Hark Riora egin zuten ibilaldia izan zuen hizpide.

Mila esker parte hartu duzuen guztioi, irratsaio horietan herri dinamiko eta partehartzailea garela adierazi duzuelako.



## Herri krosa

**H**erri krosaren helburu nagusia herritar guztiok ekitaldi berean parte hartzea izan zen.

Eta hala gertatu zen, 45 pertsonak hartu baitzuten parte; tartean, haurrak, gazteak, helduak...

Bi ibilbide izan ziren aukeran: bata, kilometro batekoa, eta bestea, hiru kilometrokoa.

Bestalde, herri krosak bazituen zenbait ezaugarri: irabazlea ez zen izan lehenengo iristen zena, baizik eta mozorro eta garraibide bereziena zeramana.

Denetik ikusteko aukera izan genuen; adibidez, "Wally" monopatin baten gainean, tximeletak hegan, ospitaletik ateratako gaixoak, mamuak, mendizaleak...

Lan gogorra izan zuten gure ama-amonek, irabazlea nor zen erabakitzeko. Azkenean, zozketa eta sari banaketa egin zuten, eta denak primeran ibili ziren!

Beste helburutako bat, kros ez-konpetitiboa lortzea izan zen... Ongi egina!

Amaitzeko, tortilla lehiaketaren txanda heldu zen, horrenbeste kirol egin eta gero primerakoa!

Mila esker goialdean bizi den koadrilatxoari, Ruth, Aitor, Nerea, Alberto, Eneko, Ainhoa eta beste guztiei.

Udarako BINGOAN elkar ikusiko dugu berriro ere! Edaria zuen kontu, ezta?





## Goierriko eskola txikien festa





## Topagunea

Itsasondotarrek, Goierriko beste herri batzuk bezala (Beasain, Ordizia eta Lazkao), Topaguneak antolatutako kultur zirkuitu batean parte hartzea erabaki genuen.

Herri bakoitzak kultur ekitaldi bat aukeratu behar zuen, guk "Euskera senzilloaren manifestua" aukeratu genuen, garrantzitsua iruditzen baitzitzaigun urtean behin antzezlan bat ikustea.

Eskolako aterpean izan zen, apirilaren 18an, 21:30ean.

Jende asko gerturatu zen; 70 bat lagun, hain zuzen.

Aktoreak Itsasondoko errealitatera primeran egokitu ziren, eta ikusleek primeran pasa zuten. Beraz, HURRENGO URTEAN ÈRE EGINGO DUGU.

## Albisteak



### Itsasondon gazte teknikari berri bat dugu

2007an Itsasondoko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin batera, tokiko gazteria plana garatzen aritu da Itsasondon. Horrenbestez, Foru Aldundiko aholkularitza zerbitzuak egin duen aurrediagnostikoan oinarriturik, 2008an lan proposamenak aurrera eramango dira. Helburua, haurren, nerabeen eta gazteen alorrean dauden beharrei aurre egitea da, eta, bide batez, Gazteria Politikak aurrera eramateko bideak diseinatzea, definitzea eta garatzea.

Helburu horiek lortzeko, gazteria dinamizatzailerik bat kontratatu da eta lanpostu horretan ari da, hain zuzen ere, Ainitze Azurmendi zegasarra.

Horrenbestez, gazteria dinamizatzailerik izango dituen funtzioak hauek izango dira:

- 1.- Udaleko gazteria politikak definitzea eta herrian erroztzea.
- 2.- Herriko haurren, nerabeen eta gazteen erreferente izateko, beraien beharrak ezagutzea, eskariak jasotzea eta erantzutzea.
- 3.- Herrian bideratu nahi diren proiektuak modu koordinatu batean sustatzea.
- 4.- Herriko gizarte eremuak jorratzea.
- 5.- Koordinazio egitura baten bidez, proiektu tinko bat sortzea eta garatzea.

Finean, lan esparru nagusia haurrei, nerabeei eta gazteei begirakoa izango da.





## Itsasondoko jaio berriak



2007an jaiotako haurren zerrenda:

Pablo  
Marwa  
Udane  
Maria  
Unai  
Nahia  
Ekaitz  
Ametz  
Maddi  
Eleder  
Maren  
Axier

2008an jaiotako haurrak:

Manex  
Enara  
Jone  
Malen  
Elorri  
Nahia  
Aitor

Jone eta Malen



## Komikia



## Asmakizuna

TXURI TXURIA EZ DA  
PAPERA, BERDE BERDEA EZ DA  
MUSKERRA, BIZARRAK DITU EZ  
DA GIZONA. ZER DA ?



## Lehiaketa

Hemen duzue berriro ere lehiaketa mundiala!

Ea oraingoan asmatzen dezuten gure disena-  
tzaileak argazkian sartu duen akatsa.

**Gure helbidea:**  
**[Itsasondo2.0@itsasondo.net](mailto:Itsasondo2.0@itsasondo.net)**